

AZKEN GUTUNA

Testua: ANTONIS PAPATHEODOULOU

Irudiak: IRIS SAMARTZI

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoi gogorrean egina. 20 x 15 cm. 48 or. 16 €.

Badu gainazala.

ALBUM IRUDIDUNAK EGITEKO NAZIOARTEKO IX. "COMPOSTELA" SARIA.

LO + 2016 (Canal Lector - Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa)

Azken gutuna (euskara)

ISBN 978-84-7681-957-9. Compostela Saria.

Una última carta (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-268-8. Premio Compostela.

Unha última carta (galegoa)

ISBN 978-84-8464-271-8. Premio Compostela.

L'última carta (katalana)

ISBN 978-84-8464-272-5. Premi Compostela.

Uma última carta (portugesa)

ISBN 978-989-749-070-5. Prémio Compostela.

Bazterra jaunaren azken laneguna zen hura.

Azken laneguna, uharte hartako postari bakarrarena.

Ez zegoen telefonorik garai hartan,

ezta posta elektronikorik ere, eta berriek, nahitaez,

oinez iritsi behar zuten...

"Azken gutuna" ipuinak Mediterraneoko uharte txiki eta eder batera garamatza. Hango bizilagunek postari zoragarria dute, 50 urte egin dituen lanean bertan, eta erretiroa hartu aurreko azken laneguna ahaztezina izango da denentzat. Hizkera poetiko eta metaforikoaz baliatuz, kontrasteak nabarmenduz, Antonis Papatheodoulouk omenaldia egiten dio gutunak banatzeko ogibide zaharrari: protagonistarentzat bokazioa da bere lana, altxorra iruditzen zaio bere zorroan daraman material baliotsua, maitasunez, oroitzapenez eta berri on txarrez betea baitago...

Irudiek osatu eta aberasten dute testua, postarien lanarekin zerikusia duten collage bitxi bati esker: gutun-azalak, zigiluak, pertsonaien forma marrazten duten hitzak... Planteamendu zinematografiko zalantzagabe batekin, Iris Samartzik plano desberdinak konbinatzen ditu, eta ikusleen begirada postariaren poltsaren barreneira bideratzen. Aspektu kromatikoa ere ongi zaindua dago: nagusi dira kolore zuriak eta okreak, eta nabarmena da kolore bakoitzaren karga sinbolikoa.

Album Irudidunak egiteko Nazioarteko IX. "Compostela" Saria irabazi duen liburu honetan harmonia eta oreka gailentzen dira, aldi berean samurtasuna eta poza transmititzeko gaitasuna, eta komunikazioa eta pertsonen eta taldeen arteko harremanak errazten dituen lanbide baten garrantzia ematen du aditzera.



- **Gala:** postari baten azken laneguna.
- **Adin egokia:** 6 urtetik gora.
- **Nabarmenezko modukoak:** Compostela Saria; omenaldia postariei; gutunak, berriak, komunikazioa, teknologiak; emozioak, oroitzapenak; Mediterraneoko paisaia; collagea.

Antonis Papatheodoulou

(Pireo, 1977)

Animazioa ikasi du eta Espainiako Literatura eta Kultura ikaslea da Greziako Unibertsitate Irekian. Haurrentzako 40 liburutik gora argitaratu ditu. *Diavaso* aldizkariaren Album Irudidunaren Saria jaso zuen 2011n; Greziako Album Irudidunaren Sari Nazionala 2011n eta 2012an, azken hau Iris Samartziren ilustrazioekin; eta IBBY erakundearen Greziako atalaren Album Irudidunaren Saria. Bere lau obra *The White Ravens* zerrendan sartuak daude. <http://www.antonispapatheodoulou.com>

Iris Samartzi

(Atenas, 1979)

Diseinu Grafikoa eta Arteak ikasi du. Haurrentzako liburuen irudigilea da, eta marrazketako irakaslea Lehen Hezkuntzan. Besteren artean, 2012an, IBBYren Greziako Sekzioaren Liburu Irudidunaren Sari Nazionala jaso zuen, Antonis Papatheodoulouren testu aduen liburu batengatik. Berriz irabaz izuen sari bera 2015ean. Bere obretako bat ere 2015eko IBBYren Ohorezko zerrendan dago. <http://www.irissamartzi.gr>



www. **Kalandraka** .com
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea
soltxate@pamiela.com